

kolaborazioak

Aginteak gure eskualdeetan iritsi duen zapaketaren maila beldurgarriak, gure nazio-borroka askatzailea erantzun «anti-represivo» huts bihurtzea nahi du. Euskal Herriaren berreraikuntza ahaztuz

Errepikapen etengabearen ondorioz, eta kultura-menpekotasun osoaren ildotik, gure hizkuntzaren egoera hitsaz konturatu ere ez gara egiten. Ez baita batere harritzekoa: Aginteak hori nahi du, eta Aginteak gure eskualdeetan iritsi duen zapaketaren maila beldurgarriak, helburu hori ere badu. Gure nazio-borroka askatzailea, erantzun «anti-represivo» huts bihurtzea. Euskal Herriaren berreraikuntza ahaztuz.

Euskararen alorrean ere, joera eta arrisku oso antzekoak soma daitezke. Eta hauetaz esango ditut gaurkoan bi hitz.

Eman dezagun Donostiako taberna batean esaldi hau entzun duzula: «yo soy venida verte en el País Vasco». Edonork esango luke seguitan: «emakume horrek ez daki gaztelaniaz... «yo» hori sobera da hor, «venida» hori «venido» da (nahiz mintzo dena emakume izan), «verte» hori «berte» ahoskatzen da gaztelaniaz (katalanez horrela ez bada ere), eta «en» hori «alda: he venido a verte al País Vasco. Eta «r» belare hori arrotza da gaztelaniaz.

Ondorioa, aho betez, hau izango litzateke: emakume horrek ez daki gaztelaniaz. Frantsesez pentsatzen du, eta frantsesezko fonologia erabiltzen du. Hitz batez: ez du gaztelaniaz egiten, frantses mozorrotuaz baizik. Ikasi egin behar du. Noren-gandik? Gaztelaniaz mintzo den jendearengandik.

Hots, fenomeno berberaren aurrean gaude gaur



Kalitategaz

José Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» • Idazlea

(jasan duguna eta jasaten duguna jasanda, erabat normala dena) gero eta maizago erabiltzen den hizkeraren aldetik.

Baina euskaraz ez dakigula deplauki aitortu, eta ikasten hasi beharrean, euskararen «kalitate txarraz» hitz egitea nahiago dugu. Areago: hizkuntzak «aldatu» egiten direla errepikatzen dugu, eta dugun arazo larriari ihes egiten diogu.

Orain, adibidez, «beste behin» entzuten da gero eta maizago. «berriz» edo «berriro»-ren ordez. Eta gakoa garbi dago: «beste behin» bikun hori «otra vez» bikunaren kalko hutsa da (gaizki egina, gainera); eta «berriz» elementu-bakarra ez.

«Behin hori emanez gero, ez dakit zer egingo genuen» (alegia, «una vez sucedido eso»), euskaraz horrela sekula erabili ez den moduan hasi da maiz entzuten. «Eso no se da», gaztelania da, euskara ez. Eta «ez dakit» hori, erdal asimilazioaren

arabera ahoskatua (ez dakit) alegia, (z) ozenaz; eta ez (eztakit), (z) gorraz, erdal fonologiari men egitea besterik ez da, gaztelaniaren erregelata aplikatuz, beraz, eta ez euskararena.

Eta abar, eta abar. Liburu osoak idatzi dira erdarakadez. Seberro Altuberetik hasi, eta Gotzon Garatereraino berrikiago. Eta, zortiztarrez, beste mordo bat idatz liteke.

Arazo larri horretan, interferentzien kontua dugu. Berez, eta oro har bederen, autoktono izaten diren hiru sistemak: morfosintaktikoa, lexikala eta fonologikoa, gaur egun, erdararen azpisail bihurtzen ari dira. Axalari eusten diote nola-hala, baina hezurra erdara dute: gaztelania ala frantsesa, geografikoki kokapenaren arabera.

Hots, horren gakoa, morrontza politikoan bilatu behar da, eta ez beste inon. Euskal Herriak, euskal hiztunen komunitateak, ez du inoiz bere Estatu izan.

Orain ez du, noski. Orain lore-poto ezagun batzuk salbu, erdaldunek agintzen dute bai Gasteizen bai Iruñean, bai erakunde politikoetan bai kulturakoetan ere; eta gero eta lotsagabekiago agintzen eta aginduko, nabarmenki agertzen denez.

Baina Nafarroako Erreinu Askatuaren garaietan ere, gauza bera gertatzen zen. Orduan ere erdaldunek ziren nagusi. *Lerro artean irakurri*, edo-ta Jimeno Jurioren ikerkuntza gaitzak eginenez, azpian, erdalduen morroi leial, euskal gizartea zegoela aurkitzen dugu. Baina nekez aurkitzen: morrontza hori abiki mozorrotua baitago, bai gaur, bai lehenago mendeetan.

Eta morrontza hori hizkuntz-interferentzien alorrean agertzen da garbiki. Euskal Herria, bertsiki, gero eta erdalduenago da. Nahiz euskararen erabilpena pit-tinka hazten hasita ere.

Zer esan nahi du, horretara, «euskararen kalitatea»

delaoko? Honek halako luxukeri kutsua baitu, Helio-gabalo-ren «faisai mihiz» manietatutako plater haiek bezalatsu.

Hemen, ordea, ez dugu «kalitatea» eskatzen, euskara baizik. Euskal euskara, zi-legi bazait.

Eta «euskal euskara» hori aurkituko badugu, atzera begiratu behar dugu. Euskal komunitatea (euskal herria, alegia, minuskulatan orain-goan) gure Aberri zafratu eta zigortu honetan, naturalki, tresna politikorik eta aparatikorik gabe, hein batez nagusi izan zen garaietara. Geure osasunaren bila abiatuz gero, gaztarora jo behar izaten dugun bezalaxe.

Gure etsaiek, jakina, «esencialismoa» salatuko dute gudan, beti ere egin izan duten bezala. Eticeko zozoket eta progreek, aisa elkarturik (eta ez lehenengo aldiz), «dena aldatzen dela» esango digute. Eta jarrera «neutralagoak» eskatuko dituzte; eta «beste behin» en alde hitz egingo dute. Jakina!

Guk Esloveniara begiratu dugu, eta Armeniara, eta Stuediara, eta hizkuntza normalizatu egin duten herrietara. Gure arazoa soziolinguistikoa dela azalduko dugu nekagaitz; eta politikoa, beraz, funtsean. Euskal komunitateak tresna politiko bat behar duela. Euskal Estatu nazionala, preseski.

Euskal Estatu bat euskaldunok gidatua eta euskal komunitatearen zerbitzutan. Kondairan... lehenengo aldiz!

semaforo gorria



Xabier AMURIZA

San Antonio Urkiolako

Joan diren egunotan Urkiolan erromes ugari ibili da, batzuk fedez, batzuk ohi-turaz, batzuk nostalgiaz, denak Urkiolako pagadien maitez eta Anbotoko Anderearen ederez. San Antonioan segurrik urterto idatzi izango nuen zer bait Urkiolaz, eta aurren ere ezin diot jaiera horri utzi, beste askorena ere badela jakinik. Bide batez kopia batzuk eta horiek barruan doroazen lan bat aurkezteko baliatuko naiz. Datorren hilean, Iruñeko UEU-n, «Bizkaiko

kopla zaharren antologia kantatua» eskaintzeko asmoa daukat, material baten aurkezpen lez. Aurkezpen kantatua izango da, hitz batzuk glosa modura tartekatuz.

Antologiako hogeita bost sortetarikoa bat San Antonio-rena da, hain zuzen. Bizkaiko kopla zaharretan, bizdezko zenez, San Antonio-rena eta Urkiolaren aipamen ugari dator. «Aita San Antonio Urkiolako» askoren bihotzeko santu debotoa. Erromeri kopletan bi ritmo nagusi dagoz, porru-

salda (bikoa) eta trikitia (hirukoa), bueltakoa edo jota ere deitu izan zaiona. Porru-saldakoa kopla txikiak esan genezake, tradizio zaharretan beti bi puntu bakarrik daukatenak, salbuespen arraroren bat izan ezik. Trikitia edo bueltakoa kopla luzeagoa da eta bi puntukoak edo hirukoak izan daitezke. dinduaren arabera, baina luzearen ere laburrak dira. Hogeita hamabi silaba gehienetan eta noiz edo noiz hogeita hamasei. Pentsa zortizko txikiak berrogeita hamabi silaba daukalka. Hona

San Antoniori buruzko porru-kopla batzuk.

Durangon bazkaldute Mañarien gora/ Urkiolara goaz San Antoniora.

Askok egiten deuto Antoniori/ egun batian juanda bestian etorri.

Urkiolara yoanda zapatak urrutu/ Aite San Antonio barriek eingoitu.

Kortan daukagu txahal bat hazurra ta azala/ Aita San Antonio lotitu daiala.

Urkiola ganeko paguen ondoon/ goguen al daukazu zer egin genduen.

Trikitri trauki trauki mailuaren hotsa/ Urkiolako puntuen fraile burumotza.

Urkiolara juan, Domilun Santirus/ lehenengo prentutia nunda Maria Jesus.

Iturrira juan da, laster da etorri/ han dauzen mutillekaz tardau ez baledi.

Han dauzen mutil horrein errosarioa/ Birjina Santa Klara Erriojakoa.

Azken hiru kopletan argumentu bitxia dago. «Domilun santirus» edo obligazio elizkoia bete ondoren, lehenengo kezka neskarena, andregai dena edo izan gurakoa. Iturriko ura edan eta zazpi bira eginik, laguna segur da. Barrabana! Hango mutilekin geratu ote da? Lasai! Mutil haiek beste debozio batean dabilta. «Santa Klara», Errioxako mama goztoa.